



Ikasturte honetan 25 urte beteko dira haur hezkuntzari ekin ziotenetik; datorren astean urteurreneko ekitaldiak egingo dituzte

2015eko irailaren 11, 451 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

25 URTE HAUR HEZKUNTZARI ESKAINIA

## 1837ko gertaera latzak antzerkita eramango dituzte larunbat honetan

Larunbat honetan, "Andoingo Gudua" ikuskizuna herriko plaza eta kale nagusienetan. Amaiera Goikoplazan izango da.

**G**udarosteek hartuko dituzte kaleak, larunbat arratsaldean. Bertarantzen denak kaleko antzerki ibiltaria ikusteko aukera izango du, herriguneko toki esanguratsuenetan antzeppenak eta borrokaldiak ikusi ahal izango dituelako. Azken egunetan dozenaka lagun lan eta lan ari dira ikuskizunaren xehetasun teknikoak lotzen. Aktoreak, bere aldetik, entsegu ugari egiten ari dira. Andoaindarrez gain, urnie-



Aktore taldea Bastero kulturgunean, aurreko ostiraleko entseguan.

tar batzuk ere ikuskizunean parte hartuko dute. Horietako bat Juankar Erasun da, "aurreko edizioan primeran pasa genuen eta esperientzia oso polita izan zen.

Urnietan bizi naiz baina andoaindarra naizenez, harrotasun handiz hartu dut antzezteko ardura".

[ANDOAIN, 2-3. ORRIALDEA]



IRAILAK 12, LARUNBATA  
GUDUAREN AGERTOKIAK

17:15 Zumea plaza.

Gudaroste karlista bertatik abiatuko da.

17:30 Goikoplaza.

Liberalen irteera.

18:00 Antzeppenak herrigunean.

Santa Krutz eliza, Kale Berria, etab.

19:30 Goikoplaza.

Azken antzezpena.

## Herri Bira, larunbat honetan

Urnietako Herri Bira larunbatean ospatuko da, berrikuntza handiekin gainera.

17:30 Nordic Walking irteera. 10 kilometro, ibilbideari bi itzuli.

18:00 Herri Bira, lasterketa laburra. 5 kilometro, ibilbideari itzuli bakarra.

18:00 Herri Bira, lasterketa. 10 kilometro, ibilbideari bi itzuli.

## Bi alkateak Urkulluren deialdian izan ziren

Urkullu lehendakariak zuzentzen duen gobernuak gatazkaren ondorioz herriz herri hildakoen zerrenda osatu du, herri bakoitzeko alkateei helarazteko. Ekitaldia Bilbon egin zuten aurreko ostiralean, eta bertan izan ziren Ana Carrere eta Mikel Pagola Andoingo eta Urnietako alkateak, hurrenez hurren.

[ESKUALDEA, 5. ORRIALDEA]

## Sorabillako jaiak


Musika, dantza, bertsoa, kirola, omenaldia..., denetik izan da Andoingo auzunean.

[ANDOAIN, 8-9. ORRIALDEAK]

## Ur hoditeria berritzea, premiazkoa

Andoingo Udal gobernu taldearentzat lehenbaitzeko gai bilakatu da. Irtenbidea aurkitzeko proposamen ezberdinak aztertzen ari da.

**A**buztuko matxurek eraginda, Andoingo Udaleko arduradunek agerrialdia eskaini zuten ur hoditeria konpontzea premiazkoz hartu dutela adierazteko.



Irailaren 5ean Ondarreta kalean hoditeria zaharkitua aldatu zuten.

Datozen hilabeteotan behin betiko irtenbidea eman nahi diote. Pedro Unanueren esanetan, "bi alternatiba ikusten ditugu, Ur kontorzioari zerbitzu osoa esleitzea edo ur-hoditeriaren aldaketa Udaletik kudeatu, horretarako finantziario bide ezberdinak -maileguak, dirulaguntzak eskatu...- aztertuz".

Orain arte egon ez diren akordio politikoak lortu behar dira arazoari irtenbidea aurkitze aldera.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA  
**Aiurri**

Udako jaien albistegia Aiurriko webgunean:

- Argazkiak, bideoak eta kronikak ikusgai
- Jarrai itzazu Sanmielak 2015
- [www.aiurri.com](http://www.aiurri.com) webgunean
- **Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak**



ARRATSALDEKO 17:15ETAN HASIKO ETA ILUNTZERA ARTE LUZATUKO DA

# Andoaingo Gudua, larunbat arratsaldeko ikuskizuna

Andoaingo eta eskualdeko historian gertakari krudela izan zen 1837an gertaturikoa. Larramendi Bazkunak 2013an gertakari hura gogoan hartu eta kale ikuskizuna eskaini zuen. Bi urte geroago, An-

doainek herri izaera lortu zueneko laugarren mendeurrenean, ikuskizuna berriro taularatuko du. Larunbat arratsalde honetan izango da, herriko plaza eta kale nagusietan.

**L**iberalak eskualdean barrena sartu eta txikioa eragiten ari dira. Baserriak, herrikideak, lurrak... guztia galbidetan da. Horren aurrean emakumezkoak sutan dira eta etsiak jo aurretik, aurre egin behar zaie la oihukatzen dute. Nafarroa aldetik dator Uranga jenerala, sendo hartu du hitza.

Karlisten garaiko gertaera hura antzeztuko dute larunbat honetan Andoainean. Asteak dira, ordea, herritar talde handi samarra ikuskizunaren alor tekniko eta artistikoetan murgilduta dabilela. Aiurri Basterora hurbildu zen, antzezlaren pasarte esanguratsuenen entsegura. Hogei lagunetik gora zeuden. Tartean eskarmentu handiko aktoreak, eta hasiberriak. Larunbat honetan herrigunera hurbiltzen direnei ikuskizun ona eskaintzeko gogoan daude.



Unai Ormaetxea, Xabier Odriozola, Aitor Amutxastegi eta Pilar Rodriguez aurreko ostiralean Bastero egin zuten entseguan. Serio demonio aritu ziren entsegu lanetan.

Kale mozketak, Zumea plaza eta Goikoplaza artean bereziki

## Ikuskizunak trafikoan eta bus zerbitzuan eragina izango du

Larunbat arratsaldekoa tamaina handiko ikuskizuna izango da. Zaldiak, gurdiak, gudarosteak,... ehunka izango dira parte hartzaileak, eta baita bisitariak ere. Horrek, noski, kale nagusietako trafikoan eragingo du. Zehazki, Zumea plaza eta Goikoplaza artean. Inguru haietan eta Kaleberrian mozketak izango dira. Udaltzaingoa antzezlaren atal ezberdinak bukatu ahala, kale horiek ibilgailuentzat irekitzen hasiko da. Mozketa horiek eragina izango dute bus zerbitzuetan ere. Adi, beraz, herrian sartu-irteeran ibiliko direnentzat.



### URNIETATIK ANDOAINERA

Urnietatik Andoainera ikuskizunaz gozatzeraz etorri nahi duenak Leizotz industrigunean edota La Salle Berrozpe ikastetxeko jolastoki irekian ibilgailua utzi ahal izango du. Bus eta tren zerbitzua alternatiba egokiak dira.

### SEGURTASUN NEURRIAK

Ikuskizunak ez du arriskurik sortuko, baina fusilariak lanean ari direnean antolaketak segurtasun neurriak betearazteko bolderak lanean jarriko ditu. Haien argibideak jarraitzeko gomendioa luzatu dute, ezustekorik izan ez dadin.

### IKUSKIZUNAREN AGERTOKI NAGUSIAK



17:15 Zumea plaza (Karlistak) | 17:15 Goikoplaza (Liberalak)



Bi gudarosteak aurrez aurre Santa Krutz zubian



Desfileak Kaleberrian, antzezlana Bastero plazan

Ikuskizuna herriko hainbat lekutan jarraitu ahal izango da, baina antolatzaileek adierazi dute ibilbidea mugaturik egongo dela ikusleentzat segurtasun arrazoiengatik. Beraz, dei berezia egingen dute ikusleek segurtasunaz arduratuko diren lagunen jarraipide guztiak bete ditzaten. **Zumea plazan** karlisten lehen bilkura ikusi ahal izango da; **Gurutze Santuaren zubian**, karlista eta li-

beralen arteko borrokak; **Kale Berrian** ere, bi gudarosteen arteko borrokak. **Basteroko plazaratxoan** *Atanaxi* eta soldaduen fusilatzea eta, azkenik, **Goikoplazan**, gudaroste liberalaren lehen elkartzea eta antzezpentxo bat eta, amaieran, azken borroka eta elizatik aterakoaren hilketa. Toki horietan guztietan ikusleek nondik ikusia izango dute, baina joan-etorriak mugatuak izango dira.



'ANDOAINGO GUDUA 1837' ANTZEZLANA LARUNBAT HONETAN ANDOAINEN

# Berrehun lagunen parte hartzea

Aurreko ostiral arratsaldean Bastero kulturguneko areto nagusian Andoaingo Guduko antzeppen tarteak entseatzen ari ziren. Besteak beste, Zumea plazan ikuskizunaren hasieran eskainiko dena. Ando-

aingo baserrietako herritarrak, bereziki emakumezkoak, haserre bizian dira. Haien alde borrokatzeko eta liberalerai aurre egiteko Uranga karlisten jeneralak hitza hartzen du.

**A**mak eta neska gazteak haserre bizian agertzen dira. **Jon Unanue** ari da zuzendari lanetan, kemen handiz gainera. Indarra adierazteko eskatzen die aktoreei, adierazpenetan tonu eta erritmo egokiena zein den etengabe gogoraraziz.

**Amaia Calparsoro** gaztea ama baten paperean agertuko da, larunbat honetan: "Lan handia dago antzeppen honen atzean. Ikusten da badagoela benetan hau egin nahi duen jendea eta hori estimatzen da. Nire kasuan, famili bateko ama bat naiz. Etxea erre digute eta egoera tamalgarrian gaude. Denak iskanbila batean, aurkariak akabatzeko gogoz". Amaren paperean arituko da **Ariane Obineta** gaztea ere. Ikuskizunean *Brigida* da haren izena: "Lehen ere antzerkia ikastolan egin izan dut, baina orain herriaren aurrean beste gauza bat da. Lotsa piska bat badut, baina tira, entseguetan ari gara prestaketa lanetan. Azkar samar hitz egiten dudala eta hori zuzentzen ahaleginduko naiz".

Emakumezkoek, esan bezala, tarte berezia dute herri antzerkian. **Maidar Arano** *Luperen* paperean arituko da, "eskolan jaso genuen parte hartzeko gonbitea eta ikuskizunean parte hartzea erabaki nuen". Haren lagun **Nahia Garcia** alboan izango du, *Claritaren* paperean: "Gure egoeratik etsita, amorrutz beterik agertu behar dugu. Urduri jartzen naiz, eta hori etxean ere prestatzen gabiltzala, baina gero jendaurrean desberdina da".

Haien aldean, eskarmentu handia dute ikuskizunean parte hartuko duten urnietarrek. Ondoko herrian, izan ere, maila handiko herri antzerkiak egin dituzte eta oso trebatuta daude horrelako muntaiak prestatzeko garaian. **Mikel Agirregomezkorta** Urnieta'59 eta beste bi antzerkietan zuzendari lanetan aritu da, eta gertukoak zaizkio horrelako lan baten atzean gutxi batzuk hartzen dituzten ardurak: "Ardura handia da, karga handikoa. Une hauetan eguna ahalik eta azkarren iristea desiatzen da,



**Roger Wesley**  
O'Connors koronela

"*Harrituta nago ikuskizunaren alde jendea orduak eta orduak sartzeko prest dabilela ikusita*"




**Juankar Erasun**  
O'Donell jenerala

"*Urnietan bizi baina andoaindarrak naizenez, harrotasun handiz hartu antzerkia prestatzeko ardura*"



**Julio Nogales**  
Liberalen gudarostea

"*Besteak beste, antzezlana gure inguruko historian sakontzeko aukera bikaina da*"



**Mikel Agirregomezkorta**  
Uranga jenerala

"*Zuzendari lanetan edo aktore lanean, ardurak oso bestelakoak badira ere, gustura aritzen naiz*"



**Amaia Galparsoro**  
Ama baten paperean

"*Herrian horrelako ekin-tzak antolatzen direla ikusita oso gustura parte hartuko dut*"



**Ariane Obineta**

**Ama baten paperean**  
"Antzerkia ikastolan egin izan dut, baina orain herriaren aurrean beste gauza bat da"



**Maidar Arano**

**Gazte baten paperean:**  
"Eskolan jaso genuen parte hartzeko gonbitea eta ikuskizunean parte hartzea erabaki nuen"



**Nahia Garcia**

**Gazte baten paperean**  
"Antzeppen lanak etxean prestatzen gabiltza, baina gero jendaurrean desberdina da"

antzezlanarekin behingoz amaitzeko". Oraingo honetan beste erantzukizun bat du, aktore lanetara soilik mugatzen dena: "Aktore lanetan ardurak oso desberdinak dira. Nire lanean bakarrik murgilduta nagoelako. Urduritasunez ekingo diot ikuskizunari, baina hori berez ez da txarra. Tentsio puntu hori beharrezkoa da". Entseguan albokoak aho bete hartzeko utzi zituen. Karlisten jeneral *Urangaren* paperean sendo, eta akatsik egin gabe, batean errezitatu zuen larunbat honetan bota behar duen hitzaldia.

Aurrez aurre, bere aurkaririk handiena, Liberalen gudarosteko *O'Donell* jenerala izango da. Paper horretan lagun min duen

**Juankar Erasun** herrikidea arituko da. Biek ere 2013ko lehen ikuskizunean bete zuten paper berdina errepikatuko dute. Erasun, ohi bezala, gogo biziz dago: "aurreko edizioan primeran pasa genuen eta esperientzia oso polita izan zen. Urnietan bizi naiz baina andoaindarrak naizenez, harrotasun handiz hartu dut Andoainen antzezteko ardura. Erronka modukoa zen niretzat, antzerkia egin izan dut Urnietan, baina hemen Andoainen zaldi gainean antzeztu behar nuen. Prestakuntza berezia egin genuen, zaldiaren gainean Leitzaran aldean txango ugari eginez. Oraingoan errazagoa izan da, zaldia eta biok dagoeneko elkar ezagutzen dugulako".

Antzezlanean, teniente lanetan, beste herrikide bat gertu izango du. **Julio Nogales** hain zuzen, "Jenio biziko militarra behar zutela eta, nirekin akordatu ziren. Oso animatuta nago, gogo biziz, barrutik bizitza merezi duen esperientzia horietakoa izaten ari da. Antzezlanean parte hartu, jende berria ezagutu eta gainera gure inguruko historian sakontzeko aukera izatea..., bikaina da".

Aski ezaguna da Andoainen **Roger Wesley** hizkuntza irakaslea. Aspaldi finkatu zen hemen, eta paper berezia izango du larunbat honetan. Bereziki, Gokoplazako azken saioan: "Irlandar jatorriko koronelaren paperean arituko naiz, nazioarteko brigadaren aldekoa. Birritan

antzeztuko dut. Lehenik hitz batzuk eskainiko dizkiet ingelesez erabat mozkortuta dauden nire soldaduei. Ondoren, hitz batzuk eskainiko ditut gaztelaniaz".

Animatuta dago, eta harrituta ere bai, "antzerkia egin izan dut, ezer gutxi, baina aspaldi! Eta kaleko ikuskizun batean, noski, sekula ez. Gogotsu nago, zertxobait urduri, baina kide onak ditut alboan eta paperean ondo murgildu naiz. Ni natorren herrialdearekin alderatuta, Andoain ospakizunen lurraldea da! Harrituta nago, jendea ikuskizunaren alde orduak eta orduak lanean aritzeko prest dagoelako".

Herritarren kemen hori ikusita, nekez atera daiteke gaizki.

# Sanmielak

2015 URNIETA

# Irailak 27

## IX. Inistor jaia

Isakitegi plaza

**12:30** IX. Maldan-gorako Inistorra  
Toka Txapelketa. San Juan plazan

**14:00** Herri bazkaria.

**16:00** Bertsolariak

- Iñaki Barrio (Bilbo)
- Beñat Gaztelumendi (Leizor)
- Iñaki Garmatzaga (Orfo)
- Nerea Elustorza (Leizor)
- Gal Jurtzalek
- Amaia Agirri (Villabona)

**17:00** "Urnietar Prestu" 2015  
izendapena

Juxto Egaña (ostutun eta euskaltzain) izango da omenburu.

**19:00** VII. Maria Arizmendi  
irrintzi lehiaketa. San Juan plazan.

**Helduentzako menua (25 euro)**

- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki


**Haurrentzako menua (16 euro)**

- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki
- Txerri txiki

**IRAILAREN 27**  
Irailaren 27ko ospakizunak

**IRAILAREN 27**  
Irailaren 27ko ospakizunak

**URNIETA**  
2015ko irailaren 11  
451 zenbakia



URKULLU LEHENDAKARIAREN EKIMENEZ, ANDOAINEN ETA URNIETAN HILDAKOEN ZERRENDAK JASO DITUZTE

# Alkateen bilkura, memoria eta biktimak ardatz hartuta

Eusko Jaurlaritzak irailaren 4an Bilboko artxiboaren egoitza nagusian EAEko alkateak bildu zituen, memoriaren erretratuen aurkezpena egiteko. Urkulluk zuzentzen duen gobernuak gatazkaren on-

dorioz herriz herri hildakoen zerrenda osatu du, herri bakoitzeko alkateei helarazteko. Gai honekiko etorkizuneko urratsak herri bakoitzak erabakiko ditu.

**A**lkate ugari hurbildu ziren hitzordura, tartean ziren Andoaingo **Ana Carrere** eta Urnieta **Mikel Pagola**. Ekitaldian ahots ugari entzun ahal izan zen, besteak beste, EAJ-

PNV, EH Bildu eta PSE-EE alderdietako alkate banarena. Baita Jaurlaritzako bake eta bizikidetzaren arloko arduradun **Jonan Fernandezena** ere. Memoriaren elkarrekin egiteko beharra aldarrizkatu zuen Urkullu lehendakariak:

“Etorkizunari begiratzen diogunean elkarrekin egin beharreko bide bat ikusten dugu. Hori bada-kigu eta horretan saiatu egin behar gara. Baina arazoa, gakoa, iraganari begiratzen diogunean sortzen zaigu. Gertuegi dugu,

gehiegi sufritu dugu, pertsona askok eta askok gehiegi sufritu dute. Badakigu, baita ere, iragan hori gainditu behar dugula, baina ezin dugu ahaztu, ezin dugu ekidin. Aurrez aurre begiratu behar diogu, benetan gainditze-

ko, benetako bizikidetzaren oinarritzeko”. Helburu jakin bat badutela aitortu zuen Urkulluk, azaroaren 10ean ospatuko den Memoriaren Egunean indarkeriaren biktimak denon artean oroitzea.

## EUSKO JAURLARITZAK HERRIZ HERRI BANATU DITUEN HILDAKOEN DATUAK, 1960-2010 URTEEN ARTEAN



Urkullu lehendakariak deitu zuen Bilboko bilkura.



Mikel Pagola, Aintzane Ezenarro eta Jonan Fernandezekin hizketan.



Ana Carrere, Azpeitiko eta Oretetako alkateekin batera.

Herriz herriko txostenetan, Jaurlaritzak “bizitzeko eskubidearen urraketak bildu eta argitalpen bat” prestatu du.

### DATU OROKORRAK

- “ETA jaio zenetik, 1960garren urte-tik aurrera, ETAK eta antzeko beste zenbait taldek 850 eraiketa eragin dituzte guztira”.
- “Eskuin muturreko taldeek, GALek eta Batallon Vasco Españolak, besteak beste, guztira 70 pertsona hil dituzte”.
- “Beste 95 biktima gehiago eragin ditu poliziaren indarkeriak”.

### ANDOAIN-URNIETA

- **IGNACIO OLAIZ MITXELENA**  
Egilea: ETA. 1978/10/29.  
Garraiolaria, Oartzunen jaio eta Andoa-  
in bizi zen. 42 urte zituen.  
Urnietako San Jose harrobian hilik  
aurkitu zuten, “ETAK Amnistiaren  
Aldeko Batzordeetan infiltratuta ego-  
tea egotzi zion”.
- **JOSE RAMON ANSA ETXEBERRIA**  
Egilea: Triple A. 1979/05/06.  
Baserritarra, Andoaingo Upategi base-  
rrian jaioa. 17 urte zituen.  
“Urnietatik Andoainera oinez zihoa-  
la, tiro bat jo zioten garondan”.

### F.JAVIER ANSA ZINKUNEGI

Egilea: Triple A. 1981/03/03.  
Baserritarra, Andoa in eta Urnieta  
arteantxixu baserrian jaioa. 35 urte  
zituen.  
“Urnietako Andoa in errepidean, su-  
armaz egindako atentatuan”.

### ANDOAIN

#### • JOSE DIEZ PEREZ

Egilea: ETA. 1979/02/03.  
Guardia Zibila, Kordoban jaio eta lru-  
nen bizi zen. 25 urte zituen.  
“Andoaingo kuartel-etxearen aurre-  
an, su-armaz egindako atentatuan  
hil zuten”.

#### • JUVENAL VILLAFANE GARCIA

Egilea: ETA. 1993/09/16.  
Guardia Zibil ohia, Leonen jaio eta  
26 urte Andoa in bizi zela. 78 urte  
zituen.  
“Guardia Zibilaren tenienteorde zela,  
erretiroa hartu eta Gipuzkoako Foru  
Aldundiko funtzionario-lanetan zihar-  
duen, bai eta Andoa in ere, ehiza-  
eta arrantza-kontuetarako baime-  
nak lortzeko tramiteak egiten. Etxe  
aurrean, Andoaingo Eskola kalean,  
autoa marxan jartzera zihola hil zuten  
ibilgailuaren azpian jarritako lapa-bon-  
ba leherrarazita”.

### • JOSE LUIS LOPEZ DE LACALLE

Egilea: ETA. 2000/05/07.  
Kazetaria, Tolosan jaio eta Andoa-  
in bizi zen. 62 urte zituen.  
“Ondarreta kalean, egunkariak ero-  
si eta inguruko kafetegi batean gosald-  
du ondoren bere etxeko atarira sar-  
tzeaz zegoela su-armaz egindako  
atentatuan hil zuten”.

### • JOSEBA PAGAZAURTUNDUA RUIZ

Egilea: ETA. 2003/02/08.  
Udaltzaina, Andoa in jaioa. 45 urte  
zituen.  
“Donostia Ospitalean, Andoaingo  
Daytona tabernan gosaltzen ari zela  
jasotako tiroen ondorioz hil zen,  
bederatzi ordu hilzorian eman oste-  
an”.

### • DAVID SALVADOR JONIO

Egilea: Triple A. 1977/10/07.  
Taxi gidaria, Bilbon jaio eta Herna-  
nin bizi zen. 44 urte zituen.  
“Buruan bi tiro egin zizkioten, Andoa-  
in bere taxi barruan zegoela.  
Andoa in, Astigarraga eta Hernani  
herriek osatutako Heriotzaren Trian-  
gelua delakoan gertatutako lehen  
hilketa izan zen”.

### • JON LIZARRALDE URETA

\*Egiaztatze eta ikerketa lan handia-  
goa behar duen kasua.

1990/06/25.  
Andoa in jaioa, ETAKo kidea zen.  
34 urte zituen.

“Irunberriko arroilan buruan tiro bat  
zeukan, distantzia laburrean egina;  
Guardia Zibilarekin tiroketa bat ger-  
tatu zen, hilotza aurkitu baino hogei  
ordu lehenago”.

### URNIETA

#### • RAMIRO CARASA PEREZ

Egilea: ETA. 1982/03/30.  
Traumatologo burua Erresidentzian,  
Kantabriar jaio eta Donostian bizi zen.  
38 urte zituen.  
“Urnietatik gertuko mendi batean,  
Andoainera doan errepidean tiroz hll-  
da aurkitu zuten. Itxuraz, bahitu eta  
galdeketa egin zioten”.

#### • PABLO SANCHEZ CESAR

Egilea: ETA. 1983/09/16.  
Polizia Nazionaleko kidea, Badajozen  
jaio eta Urnietan bizi zen. 24 urte  
zituen.  
“Urnietako tren geltokian tirokatu  
zuten”.

#### • FROILAN ELESPE INCIARTE

Egilea: ETA. 2001/03/20.  
PSE-EEko alkate-ordea Lasarte-  
Orian, Errenterian jaio eta Urnietan  
eta Lasarten bizi zen. 54 urte zituen.

“Buruan bi tiro jo zizkioten Sasoeta  
tabernan, Lasarte-Oriako Urko pla-  
zan”.

#### • JOSE CAMIO LARRAÑAGA

Egilea: Batallon Vasco Español.  
1980/11/23.  
Urnietan jaio eta Hendaian bizi zen.  
52 urte zituen.  
“BVEko hiru kidek Hendaia L'Hen-  
dayais ostatuaren kontra tiro egin,  
eta bi bezero hil eta zortzi zauritu zituz-  
ten”.

#### • GURUTZE IANTZI IGARATEGI

\*Egiaztatze eta ikerketa lan handia-  
goa behar duen kasua.  
1993/09/24.  
Urnietan jaioa, HBko militantea zen.  
31 urte zituen.  
“Bihotzekoak emanda hil zen, Guar-  
dia Zibilak galdeketa zuela Madril-  
go Tres Cantos postuan. Guardia Zibi-  
leko Informazio Brigadak atxilotu  
zuen bezperako goizaldean, Julian  
Irastortza senarrarekin eta lagun  
batzuekin batera. Operazio hartan atxi-  
lotutako gainerakoak libre ateratu ziren,  
kargurik gabe, baina tratatu txarrak eta  
torturak salatu zituzten”.

\*Herri guztietako datuak eskuragarri  
daude Euskadi.eus webgunean.

## Kalejira burrunbatsua Urnietako kaleetan



Buruntzantzan taldeak eraman zituen kirolariak San Juan plazaraino.

Buruntzantzan batukada taldeak, Sarobeko funky taldeak eta Egape dantza taldeak Urnietako futbol taldeen aurkezpen ekitaldian parte hartu zuten, herrigunean giro berezia ezarriz. UKEk ohiko bilakatu du denboraldi hasierako aurkezpenak egitea. Aurten, ordea, herriak 400 urte bete

dituela eta Kiroldegian hasi eta plazaraino kalejira egin zuten. Ikusle askoren arreta bereganatu zuten.

Kirol taldeen argazkiak erdiko gehigarrian ikusgai daude.

Kalejiraren bideoa, berriz, aiurri.com gunean ikusgai dago.



Egape dantza taldeak jokalariei agurra eskaini zien San Juan plazan.

## Aurrera Gure Ametsa dantza taldearen oharrak

Sanmielen atarian ohar ezberdinak helarazi nahi dizkiete dantzazaleei. Lehenik eta behin, aurten ere euskal dantzak ikasi nahi dituenarentzat atea zabalik dituzte. Izena emateko aukera irailaren 28ra bitarte luzatuko da.

### INGURUTXOA SANMIELETAN

Urriaren 4an, Ingurutxoa dantzatuko dute. Ikasi eta parte hartu nahi duena entsegetara ager daiteke. Asteazkenetan 18:00etatik 19:00etara zahar egoitzan.

**ERRENAZIMENDUKO DANTZAK**  
400. urteurrenarekin bat eginenez, taldeak errenazimendu garaiko dantzak eskainiko ditu San Juan plazan. Parte hartzeko, horra entsegu egunak: Asteazkenero, 19:00etatik 20:00etara zahar egoitzan. Ostiralero, 17:15etatik 18:15era Saroben.

Iragarritako hitzorduen inguruko informazio gehiago lortu nahi duenak bi aukera ditu:

- 674 252 581
- agaurnieta@gmail.com

Presentacion de Mariako Haur Eskolaren urteurrena

## Haurren hezkuntzan 25 urte

Haur hezkuntzan ibilbide oparoa egin du ikastetxeak, Urnietan. Urteurren borobila ezin oharkabean igaro eta ikastetxeak ekitaldi sorta antolatu du datozen egunetarako.

### Irailak 12, larunbata

**11:00** Ospakizuna ikastetxean: 25. urteurrenako ospakizunaren inaugurazioa ikastetxean. Aurkezpena, bertsoak, aureskua, muralaren erakusketa eta 25. urteurrenako plakaren aurkezpena.

### Irailak 15, asteartea

**17:00** Lekaion hitzaldia: "Familiako eguneroko gatazka ekidin eta kudeatu zigorrik erabili gabe". Hizlaria: Mireia Centeno.



Urteurrena gogoan hartzen duen argazkia atera dute ikastetxean.

### Irailak 17, osteguna

**17:00** Lekaion hitzaldia: Sexismoa eta berdintasuna. Fernando Oregi.

### Irailak 18, ostirala

**19:30** Triki-potea: Guria, Zaldu, Egur.

### Irailak 19, larunbata

**10:00-12:00:** Ibilaldi neurtua.  
**11:30-13:00:** Jolasak.  
**12:30-14:00** Paella lehiaketa.  
**14:00-15:30** Bazkaria.  
**14:45-15:45** Tailerrak.  
**16:00-17:00:** Zumba.  
**17:00** Ospakizunaren amaiera.

Irailean zehar izena emateko aukera zabalik urnietarrentzat

## Helduen eskola, martxan

Helduen eskola ikastetxe ofiziala 18 urtetik gorakoentzat da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku dagoena. Eskualdean, zerbitzua Hernanin eta Andoainen eskainiko dute 2015-2016. ikasturtean. Arduradunek adierazi dutenez, matrikula epea iraila osoan zabalik izango da. Matrikula doakoa da eta irakasleak, irakasle tituludunak eta espezializatuak dira.

Ikasturtea bi lau hilekotan antolatuko da: Iraila-otsaila eta otsaila-ekaina. Eskolak goi-

zez, arratsaldez eta gauez eskaintzen dira. Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko eskolak ematen dituzte. Horrez gain, euskara, ingelesa eta informatika alorrean oinarriko formakuntza.

### HEZKUNTZA ARAUTUA

- Idazten edo irakurtzen ikasi.
- Komunikazio trebetasunak hobetu.
- Zure matematika ezagupeak gaurkotu.
- Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortu.

### HEZKUNTZA EZ ARAUTUA

- Euskera, astean 2 egunez.
- Ingelesa, astean 2 egunez.
- Informatika, astean 2 egunez.

### IZEN-EMATEA

Astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Ostiralean, goizez soilik.

### Hernani:

Antziola, 62.  
943 335 318.

### Andoain:

Kale Nagusia, 4B.  
943 304 021.

## HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA 2015-16

Matrikula irailaren 18ra arte irekita

Denbora gutxi al daukazu euskaltegira etortzeko?  
Lasai, 5 orduko modulua daukagu,  
astean bitan bakarrik etortzeko!

Beste beste moduetan ere: astean 6 eta 10 ordu, ardurakuntza.  
ETORRI EDO-DEITU ETA GALDETU!

Hiru hizkuntza moduetan eskaintzen ditugu gure eskolak.

Konfiantza erantsi. 40 urteko tradizioa daukagu. | Tel.: 943 33 18 96  
E-mail: euskaltegi@hernani.euzkadi.eus  
Irailaren 18ra arte irekita | 09:00-13:00 | 16:00-18:00



Hernaniko  
Foru Aldundia  
Euskara Zuzendaritza

# URNIETA KE FUTBOLA 2015/2016



**URNIETA KE FUTBOLA:  
DENBORALDI BERRIAREN AURKEZPENA.  
AURKEZPEN EKITALDIA.  
URNIETA, IRAILAREN 5EAN.**

**KALEJIRA ETA AURKEZPENA PLAZAN,  
400. MENDEURRENA GOGOAN.  
AURKEZLEA:  
MIKEL IBARGOEN.**

**MUSIKA ETA DANTZA:  
EGAPE DANTZA TALDEA.  
BURUNTZANTZAN URNIETAKO BATUKADA.  
SAROBKO FUNKY TALDEA.**

**DENBORALDIAREN JARRAIPENA:  
URNIETAKOKIROLELKARTEA.COM.  
AURKEZPENAREN ARGAZKIAK, BIDEOA:  
AIURRI.EUS**

# Futbol eskolaz gain, hamaika futbol talde

**DENBORALDI HONETAN INFANTIL MAILATIK HASI ETA SENIOR MAILARAINO HAMAIKA TALDE LEHIATUKO DIRA URNIETAKO ELASTIKOAREKIN, HORIETATIK HIRU EMAKUMEZKOAK IZANGO DIRA. HORIEZ GAIN FUTBOL ESKOLAKO LAU TALDE GEHIAGO.**

## ERREGIONAL MAILA

Aitor Harto 1  
 Pablo Santos 2  
 Jon Ander Villalva 3  
 David Sierra 4  
 Jon Ramos 5  
 Imanol Andres 6  
 Yeray Moreno 7  
 Mikel Miranda 8  
 Miguel Ramos 9  
 Iker Ramos 10  
 Urko Antolin 11  
 Ibai Guzman 12  
 Aitor Aramendi 14  
 Ander Hernandez 17  
 Mikel Garmendia 18  
 Ander Urruzola 19  
 Juancar Solis 20  
 Ibai Garmendia 21  
 Julen Loinaz 22  
 Endika Garcia 23  
 Xabier Ansa 24

Entrenatzailea:  
 Jon Telletxea.  
 2. entrenatzailea:  
 David Sierra.  
 Atezainen prestatzailea:  
 Ion Jabat.  
 Ordezkarria:  
 Luis Alberto Mangas.



## SENIOR MAILA

Naroa Garcia 1  
 Irene Legarra 2  
 Ane Dominguez 3  
 Maialen Diaz 4  
 Eider Manterola 5  
 Lorea Barkaiztegi 6  
 Lorena Busto 8  
 Alba Cabrera 9  
 Ane Arozena 10  
 Agate Arregi 11  
 Lorena Arias 12  
 Oihana Cortes 13  
 Enara Pellejero 15  
 Amaia Arenas 16  
 Dana Menendez 18  
 Ixiar Alzaguren 19  
 Lorena Pastor 21  
 Idoia Valverde 22  
 Sara Fermin 23  
 Marta Ollacarizketa 24

Entrenatzailea:  
 Imanol Andres.  
 2. entrenatzailea:  
 Oscar Pavon.

## JUBENIL MAILA

Ibai Usabiaga 1  
 Danel Agudo 2  
 Ivan Galan 3  
 Andoni Rekondo 4  
 Mikel Goikoetxea 5  
 Iñigo Diaz 6  
 Borja Arocena 7  
 Alen Frutos 8  
 Eneko Ramirez 10  
 Julen Abad 11  
 Iñigo Sanchez 13  
 Jon Iribar 14  
 Diego Carballeda 15  
 Josu Unanue 16  
 Julen Arretxe 17  
 Asier Lozano 18  
 David Galan 19  
 Kasper Styrzczula 20  
 Javier Pastor 21

Lander Vicente 22  
 Alberto Garcia 23  
 Unai Medina 25  
 Entrenatzailea:  
 Albert Fuentes.  
 2. entrenatzailea:  
 Ivan Murillo.







# Berrehun pertsonetik gorako giza taldea

**176 JOKALARI HAMAIKA TALDEETAN, 58 GEHIAGO FUTBOL ESKOLAN, TITULUDUN DIREN 7 ENTRENATZAILE, 6 KIROL BEGIRALE, 2 PRESTATZAILE, AISIALDIKO ZUZENDARI BAT ETA 12 ORDEZKARI. GIZA TALDE HANDIA FUTBOLAREN INGURUAN.**

## JUBENIL MAILA B

Ander Aduriz 1  
Ibai Carvajal 2  
Unai Agudo 3  
Aritz Rodriguez 4  
Asier Intxausti 5  
Dani Cumbres 6  
Cristian Alfonso 7  
Andoni Balda 8  
Iñigo Gimón 9  
Xuban Balda 10  
Haritz Apezetxea 11  
Alvaro Robledo 14  
Aitor Murua 17  
Hodei Santin 19  
Julen Labaka 20  
Iñigo Fernandez 21  
David Cuenca 22  
Cristhian Shiffo 23  
Gorka Aldanondo 26

Entrenatzailea:  
Txema.



## KADETE MAILA

Xanti Garcia 1  
Kevin Iraola 2  
Andoni Almorza 3  
Andoni Izagirre 4  
Oier Jimenez 6  
Jon Bueno 7  
Xabi Garmendia 8  
Andoni Oyarzabal 9  
Lander Sanchez 10  
Miguel Lajas 11  
Joseba Vela 13  
Edorta Ibargoien 14  
Ekain Cachafeiro 16  
Aritz Erasun 17  
Ibai Sanchez 18  
Josu Lopez 19  
Aritz Lekuona 21  
Sergio Fernandez 24  
Aimar Ruiz 25

Entrenatzailea:  
Ion Jabat.  
2. entrenatzailea:  
Beñat Lizaso.

## KADETE MAILA B

Zohar Garmendia 2  
Josu Sarasua 3  
Oihan Fernandez 4  
Joel Pezonaga 5  
Beñat Goiaran 6  
Sergio Serrano 7  
Dani Gutierrez 8  
Ander Atxukarro 9  
Pettan Uralde 10  
Beñat Beristain 11  
Jon Vidaurreta 12  
Unai Martinez 13  
Igor Matellanes 14  
Steven Romero 15  
Martin de Bernardo 16  
Jon Ander Esteban 17  
Abel Solis 18  
Gaizka Tolosa 19  
Martin Quel 20

Entrenatzailea:  
Ibai Guzman.  
2. entrenatzailea:  
Miguel Ramos.



# Izarren pareko aurkezpen ekitaldia

**KIROLDEGITIK UDALETXERAINO KALEJIRAN IBILI ETA GERO, TALDEZ TALDE ETA JOKALARIZ JOKALARI AURKEZTU ZITUZTEN JENDAURREAN. AURREKO LARUNBATEKOA, MUSIKAZ ETA DANTZAZ OSATURIKO AURKEZPEN EKITALDIA IZAN ZEN.**



**KADETEAK**

Irene Manso 1  
Iosuna Larraloz 2  
Amane Rojo 3  
Garazi Urio 4

Irati De Torres 5  
Irati Eizmendi 7  
Ane Marin 8  
Elena Soroeta 9  
Ane Etxeberria 10

Maddi Intxaurren 11  
Nahia Gonzalo 14  
Haizea Belaunzarán 21

Entrenatzailea:  
Rui Rico.  
2. entrenatzailea:  
Juan Carlos Solis.



**INFANTILAK**

Maria Muro 2  
Maitane Arretxe 4  
Gorane Cobas 8  
Laura Santamaria 9

Izaro Diaz 11  
Jone Etxeberria 14  
Aiende Lajas 7  
Uxue Iguaran 10  
Ane Arruti 12

Jone Odriozola 3  
Uxue Olarzal 5  
Irati Gonzalez 6  
Nerea Urdangarin 15

Entrenatzailea:  
Leyre Larrañaga.  
2. entrenatzailea:  
Paula Odriozola.



**INFANTILAK**

Edu Cobzaru 1  
Ekain Fernandez 3  
Markel Mujika 4  
Iñigo Alfonso 5

Asier Agudo 6  
Hodei Rada 7  
Iker Godoy 8  
Alex Taracena 9  
Iker Garcia 10

Ander Grajeras 11  
Joan Anso 12  
Oihan Piñeiro 15  
Mikel Diez 17

Entrenatzailea:  
Iker Lizarralde.  
2. entrenatzailea:  
Pablo Fraisoli.



**INFANTILAK B**

Markel Alkaide 1  
Josu Almorza 2  
Imanol Diaz 3  
Gaizka Blazquiz 4

Andoni Urria 5  
Eneko Lete 6  
Gorka Larraloz 7  
Jagoba Usarraga 8  
Ibai Mujika 9

Unai Atxukarro 10  
Xanet Lizeaga 11  
Adrian Cumbres 12  
Joseba Giganto 14  
Ander Goikoetxea 17

Rodrigo Mateos 18  
Entrenatzailea:  
Josemi Sanchez.  
2. entrenatzailea:  
Jon Ramos.



**FUTBOL ESKOLA**

## ANDOAINGO UDALEKO LEHEN ALKATE-ORDEA ETA ZERBITZUAK SAILEKO BURUA

# Ur hoditeria, lehentasunezko gaia

Pedro Unanue Andoaingo Udaleko lehen alkate-ordea eta Zerbitzuak saileko arduradunak datozen hilabeteotan ur hoditeriaren arazoari irtenbidea eman

nahi dio, gainerako alderdi politikoaren adostasunarekin. Abuztuko matxuren ondorioz, gobernu taldeak arazoa azaltzeko agerraldia egin zuen.

**Arazoa errepikakorra da azken aldian. Ur hoditeria zaharkitua dela jakinda, bizilagun asko arazoa konpontzeko zeren zain zaudeten galdezka arituko dira.**

**Pedro Unanue.** Irtenbidea hoditeriaren goitik beherako berrikuntzarekin iritsiko da. Aurreko agintalditik arazoari heldu nahi izan diogu, lehenagotik ere badatorrena. Ur Kontsorzioari zerbitzu osoaren kudeaketa uzteko saiakera egin zen, baina ez zen akordiorik izan. Eta horri Udaleko egoera ekonomiko larria erantsi behar zaitzaion, inbertsioak egiteko zailtasunekin.

Akordiorik ez da lortu denbora tarte horretan, eta zoritxarrez gauden egoeran gaude orain.

**Hainbeste matxura jarraian zeren ondorio da?**

**P.U.** Iraganean ez ziren hoditeria berritzeko lanak hartu. Bere garaian, ura Leitzaranetik hartzen zenean, ura herriarena zen eta zerbitzuak ematen zuen irabaziarekin hoditeria berritzen hastea zuhur jokatzeko litzateke. Ez zen hori egin, eta orain utzikeria horren ondorioak noiztzen ari gara.

Ibiurren sartu ginen, egoera bitxian: ur zerbitzu berria jasotzen hasi ginen, hoditeria zaharkitua genuen bitartean.

**Aurtengo urtarrilean espero al zenuten denbora tarte honetan 20 matxura izatea?**

**P.U.** Ez. Baina geroz eta gehiago egongo direla esan dezaket. Eta arazoia oso sinplea da: hoditeria geroz eta zaharragoa da. 50 urte inguru du. Gaur bertan -irailak 5- Ondarretan beste matxura bat izan da.

**Hoditeria berritzeko adostasun politiko falta aipatu duzu hasieran. Orain arte egon ez den adostasuna lortuko al da orain?**

**P.U.** Ez dago beste irtenbiderik. Lehentasunezkoa da, ez gober-



Pedro Unanue, aurreko ostegunean hedabideen aurrean eskaini zuten agerraldian.

nu taldearentzat, herri osoarentzat baizik. Bost alderdi gaude ordezkariak ezberdinarekin. Ezezkoak ez du balio, desadostasunen aurrean alternatibak proposatu beharko dira. Gaur egun proposamen ezberdinak lantzen ari gara, ea aurrera egingen dugun. Eta, bestela, ados ez dagoenak aurkez dezala alternatiba bat.

**Zeintzuk dira proposamenak?**

**P.U.** Bi alternatiba ikusten ditugu, Ur Kontsorzioari zerbitzu osoa esleitzea edo ur-hoditeriaren aldaketa udaletik kudeatu, horretarako finantziario bide ezberdinak -maileguak, dirulaguntzak eskatu...- aztertuz.

**Hoditeria zaharkituz gain, ur presioa ere hipside izan zenuten.**

**P.U.** Presioa mugatzeko ikerketa abiatu dugu. Ur biltegia Andoaingo gaialdean dago, eta herriaren zerbitzua eskaintzeko presioa tokiarenekin ezberdina da. Ikerketa horri esker ur presioa zein tokitan jaitsi daitekeen jakin ahal izango dugu. Hoditeria zaharra izatean, gehiegizko presioaren eraginez hodiak lehertu egiten direlako.

**Neurtuta al daukazu metroetan, orain arte konpondutakoa?**

**P.U.** 750 metro berritu dugu azken lau urteetan: 150 metro Ama Kandidan, 100 Bertxinen, 30 Olagainen, 100 Goiburun, 140 Kale Berrian, 150 Gudarien etorbidean. Beste konponketa txikietan 80 metro gehiago. Ur sarea bere osotasunean 5560 metrokoa da. Teknikariek arrisku gehien 1815 metroan ikusten dute, horiek aldatzea premiazkoa da. Berrikuntza horretarako 2 milioi euro beharko genituzke.

**Kalteak gutxitzeko ezin al da neurririk hartu? Abuztuaren 29ko matxuraren ondorioz, esaterako, hainbat gunetan ordu luzez ur zerbitzurik gabe geratu ziren.**

**P.U.** Eremuaren eta matxuraren arabera izaten da. Kale Nagusiko gertatu baina egun batzuk lehenago, Gudarien etorbidean hoditeriaren 21 metro aldatu genituen oso denbora tarte txiki. Zergatik? Tarte garbia delako, ez zegoen gas eta argindar sarerik ondoan. Kale Nagusian, aldiz, etxebizitzak daude eta gas hoditeria ere lur azpitik doa. Argindarra ere bai. Zeregi-

nak biderkatu egiten dira: farolak kendu behar dira, gas zerbitzuaren teknikariari deitu behar zaio, eta matxura konpontzeko eskuz lan egin behar izaten da. Horrelako tokietan, gainera, gauzez ezin da lanik egin tresneriak soinu handia ateratzen duelako. Zaraten arauditegia errespetatu behar dugu.

Ur mozketaren iraupena murrizte aldera, Kale Nagusian egun hauetan hoditeria berritu eta giltza modukoak ipiniko ditugu, ur mozketen aurrean ahalik eta eremu txikienari eragiteko.

**Ur hoditeriarena zeregin garrantzitsuena al da zure sailarentzat?**

**P.U.** Hasteko eta behin, kezkatu egiten gaitu. Herritar eta agintari bezala kezkatu egiten nau. Udal langilegoari eskerrak eman behar dizkiogu. Matxura sortu eta berehala etortzen dira.

Arazo handi bat da, bai. Ezin gara lasai ibili. Lehendik datoren arazoa da, eta konponbidea orain aurkitu behar diogu.

Ur azpiegiturarekin batera, argiteria berritzea izango da gure erronkarik handiena. Andoaingoan ikerketa egin genuen, eta lehiaketa martxan jarriko dugu laster. Goitik behera aldatuko dugu argiteria azpiegitura, eta berritzearen faktura aurrezten dugun diruarekin ordainduko da.

Argiteria sistema berriarekin %74 aurreztuko dugu fakturan, eta inbertsioa aurrezten dugunarekin ordainduko dugu. Efizientzian irabaziko dugu, eta eguraldiaren gorabeheren arabera argindarra handitzeko aukera izango da. Adibidez, zebra bideetan eguraldi kaskarra egiten duenean.

Berrikuntzarekin puntu beltzekin amaitzea espero dugu, bide batez.

[Aurri.com](http://Aurri.com) gunean gobernu taldearen agerraldiaren bideoa ikusgai dago.

## POSTONTZIA

## BERRIZ ERE URIK GABE

“Pasa den abuztuaren 29 gauean, berriz ere gertatu zen, Kale Nagusiko hodi bat lehertu eta gure auzoa berriz ere urik gabe geratu zen igande arratsalderarte. Ez da aurreneko aldia eta ez dirudi azkenekoa izango denik ere.

Ez dakit, gure auzoan askotan urik gabe geratu garelako daukagun sentsazio hau, baina iruditzen zait, urik gabe egun oso bat egoteak eguneroko jarduna nola baldintzatzen duen ez dakitela Udalean. Urtean zehar behin baino gehiagotan urik gabe gertatu balira, lehenago konponduko luketela hoditeria. Pasa berri dira hauteskundeak eta herritarrok gure ordezkariak, herriko arazoak konpondu eta herria kudeatzeko aukeratu genituen, eta gaur egun Andoaingoan duen arazorik larrienetakoa hoditerian dauka. Baina zer egiten dute honen aurrean?

Oraingoan guri tokatu zaigu, baina udan zehar Kale Nagusian eta beste hainbat lekutan ere gertatu da eta herritarrok nazkatzen hasiak gaude, hodiak probisionalki konpontzen baitituzte baina berriz noiz gertatu zain gertatzen baikara.

Horregatik idazten dugu eskutitz hau, bestela irudipena dugulako, gure kexak ez direla inora heltzen, eta kexarik ez badago ez duzuela arazoa konponduko. Ziur gaude eskutitz hau ehunka eta ehunka andoaindarrek sinatuko luketela, alderdi ezberdinei botoa eman dien ehundaka eta ehundaka andoaindarrek. Bozka ezberdina eman duten andoaindarrek arazo berdinak baitituzte. Politikako gai askotan zuen ezberdintasunak eta eztabaidak izatea normala iruditzen zaigu eta ez gara hor sartzen, baina Andoaingo hoditeriak behar duen konponketan ados ez jartzea lotsagarria iruditzen zaigu, eta zuen aldetik, herritarrekiko duzuen begirune eskasak erakusten du.

Badakigu idatzi honek ez duela ezer konponduko baina ea gure kexa azaldu, zer pentsatua ematea lortzen dugun behintzat”.

**Sara De Jesus eta Naiara Etxeberria auzotar batzuren izenean.**

## SORABILLAKO JAIK 2015

# Sorabillako jaiak, txikitasunean handi

Beren txikitasunean, Sorabillako jaiak topatu dute azken urteotan arrakastatsuak gertatzeko formula, eguraldia lagun izanik. Badira klasiko bihurtu diren ekitaldiak: Iturzaeta memorialaren erreban-

txa, zikiro jatea, kontzertua elizan, pailazoen emanaldia, omenaldi ekitaldia, bertso saioa... Dagoeneko auzokide eta herrikide askoren gogoko hitzorduak dira.

**T**xikienak asetzeko aukera eduki zuten pailazoenekin, lasterketa txikiarekin eta puzgarriekin. Kirolariek ere majo izerditzeko aukera izan zuten, larunbat goizean bikoteka egin zen mendi lasterketan, eta baita Iturzaeta Memorialeko palako errebantxan ere.

Herri nahiz auzoko jaietan gero eta zailagoa egiten da gau parteko dantzaldietara jendea erakartzea, baina halakorik ez da aurten Sorabillan gertatu. Los Rubi taldeak aise jartzen ditu dantzan zikiro jatera hurbiltzen direnak, eta larunbatean El ritmo del Desvan taldeak jende asko erakarri eta dan-



Sorabillako Irati Rivas abeslariak eta bere taldeak 70-80ko hamarkadetako pop-rock abesti ezagunenak eskaini zituzten.

tzan jarri zituen. Sorabillako Irati Rivas abeslariak eta bere taldeak 70-80ko hamarkadetako pop-rock taldeen abesti ezagunenak eskaini zituzten, bertaratu ziren gozamenerako. Goizaldera arte ez zen bakerik izan Sorabillako karpan.

## SUKALDARIEI OMENALDIA

Jai batzordeko kideek zikiro jatea probestu zuten Sorabillan sukaldeaz arduratzen diren Axun Gonzalez eta Antonio Barbado batzordekide nekaezinei esker ona adierazteko. Merezitakoa izan zen ezustean jaso zuten omenalditxoa.

Argazkiak, bideoak: aiurri.com



Jai batzordeak zikiro jatea probestu zuen sukaldeaz arduratzen diren Axun Gonzalez eta Antonio Barbado batzordekide nekaezinei esker ona adierazteko.



Ate irekiera jardunaldia antolatu zuten auzoko erretoare etxean.



Bikoteka egin zuten lasterketa Belkoain aldera. Lehen aldia zen eta harrera ona izan zuen.

SORABILLAKO JAIK 2015

# Nagore Arizaga erabat hunkitzea lortu zuten

Nagore Arizaga hunkitzea lortu zuten Sorabillako auzotarrek, igande eguerdian prestatu zioten omenaldi ekitaldiarekin. Ondo-ondoan izan zituen Urki dantza taldekoak, eta baita kantxetan taldekide

izan dituen Leizaran eta Bera Beran eskubaloi taldeetako jokalariek ere. Oso babestuta sentitu zen ekitaldian zehar. Herriko kultur talde askok hartu zuen parte ekitaldian.

zan ere, ligan jo eta su dabil-tza **Bera Berako** jokalaria, baina ez zuten hutsik egin nahi izan hitzordu berezian. **Uxue Ezkurdia, Esther Arrojeria, Maitane Etxeberria, Alba Menendez, Matxalen Ziarsolo** eta **Silvia Ederra** Sorabillara hurbildu ziren, estatu mailan egun parekorik ez duen talde osoa ordezkatzuz. Nahiz eta eskubaloia utzi, ez daukate la ahaztuta azaldu nahi izan zioten horrela. Asko estimatzen baitute, berarekin hainbeste urtetan jokatu, eta elkarrekin horrenbeste ordu pasa eta garaipenak lortu eta gero. Ana Carrere alkatea ere bertan izan zen, ez agintari gisa, gaztetan bere entrenatzaile izan zelako baizik.

Nagore, besteak beste, hiru aldiz izan da Espainiako ligako txapelduna Bera Berarekin, Euskadiko selekzioarekin jokaturakoa da eta 2009an Euskadiko kirolaririk onenaren saria jaso zuen. Horren gazte izateko egin duen ibilbide benetan oparoa nabarmendu nahi izan zuen Sorabillako Jai batzordeak. Aitziber Sarasola aurkezleak azaldu zuenez, Andoainen nekez topa daiteke emaitzetan halako arrakasta lortu duen kirolaririk. Nolanahi ere, Andoainen ez da behar bezala baloratu bere ibilbidea, ziurrenik eskubaloiak ez



Nagore Arizaga omentzeaz gain, ekitaldia Leizaran eta Bera Bera taldeen urtetako lana goraiatzeko baliatu zuten.

daukalako behar bezainbat oihartzun, eta zergatik ez aitortu, emakumeen kirolak bigarren mailakotzat jotzen jarraitzen delako oraindik zoritxarrez.

Nagorek 23 urterekin elite mailako eskubaloia utzi duela eta, Andoainen askok sentitu duten atsekabea adierazi zuten: "Nagoreri gertatu zaiona ilustragarria izan daiteke ikusteko zein modu ezberdinean hartzen ditugun gizonezkoen eta emakumezkoen kirol lorpenak, eta oraindik zein zaila egiten zaion eliteko kirolean dabilen emaku-




Nagore Arizaga Bera Bera taldeko jokalariekin eta Jone eta Lierni gazteekin batera.


me bati kirola eta bizibidea uzartu ahal izatea". Eliteko kirolean Nagorek egindako lorpenez gain, bere nortasuneko zenbait ezaugarri ere nabarmendu nahi izan zituzten Sorabillan igandean, hala nola, diziplina, umiltasuna, alaitasuna eta eskuzabal-tasuna.

Omenaldi ekitaldia, halaber, Leizaran eta Bera Bera taldeen urtetako lana goraiatzeko baliatu zuten. Leizarango ardura-dunei eskerrak eman zitzaizkien 1979az geroztik egundoko ahalgina egiten ari direlako eskubaloiarako zaletasuna gazteengan zabaltzeko, eta batez ere, emakumeekin aparteko lana egiten direlako, eredugarri bihurtzeraino Euskal Herri osoan. Bestalde, Sorabillan gogoratu zenez, egun, Bera Bera da Gipuzkoan dabilen kirol talderik arrakastatsuen, nahiz eta uko egin behar izan dion Europako txapelketetan jokatzeari, ekonomikoki ez zaiolako bideragarria.

Andoaingo hainbat kultur eragilek osatu zuten esker oneko ekitaldia: besteak beste, Olagain txistulari banda, Lopez de Munain anai-arreba txalapartariak, Urki dantza taldeko bi dantzari, Gora Kale Txiki txaranga eta Joxe Mari Oiartzabal musikaria.



Beloki, Iguaran, Telleria, Eskudero eta Mendiluze bertsolariak.



Kantujira taldekoak jai guneko giroa berotu zuten.



## Ricard eta Begiristain memoriala, larunbat honetan



Denboraldi aurreko azken partidak dira, urnietarrentzat esanahi berezikoak. Partida politik Urnietako zelaian.

**Irailak 12, larunbata**  
10:00 Urnieta KE-CD Hernani  
11:00 C D Hernani-Ostadar  
12:00 Urnieta KE-Ostadar

## Hernanik penaltietan irabazi zuen Larramendi txapelketa




Euskaldunak denboraldiaren atarian antolatzen duen txapelketa Hernani garaile izan zen, penaltietan Tolosa garaitu eta

gero. Partida 0-0 amaitu zen. 3-4. posturako partidaren Zarautzek Euskalduna garaitu zuen, penaltietan baita ere.

## Iturria Valentziako Itzulian

Urnietarra Herbeheretako selekzioko kideei aurre egiteko txirrindulari bakarria izan zen. Saillkapena:

1. Martijn Budding.
2. Mikel Iturria.
3. Joris Nieuwenhuis.



# Eraberrituta dator Herri Birako XIX. edizioa

**L**arunbat arratsaldean jokatu da; 5 eta 10 kilometroko bi proba antolatu dira, baita Nordic Walking-eko lasterketa bat ere. "Korrikalaris a tope 8.0" elkarteak hartu du antolakuntza ardura, eta 300 lagunetik gorako parte hartzea espero dute.

Urnietako Herri Bira aurpegi eraberrituta dator. XIX. Ekitaldia osatuko da larunbat arratsaldean, baina aurten elkarte sortu berri baten laguntza jasoko du udaletxeak: **Korrikalaris a tope 8.0** izena eman diote elkarteari, eta azken ekitaldietan Herri Bira tantaka galtzen ari zen parte hartzea iraultzea dute asmoa. Udaltxeari antolakuntzan laguntzea proposatu zioten udaberriean, eta orduan hasi ziren lanean. 20 bat kide ditu elkarteak, eta euren izenaren jatorriak azalpen erraza du. Igande goizero, 08:00etan, Erratzuko zubian hitzordua egiten hasi ziren, korrika saioa egiteko. Hortik euren izena.

Herri Birak kokapen ezin hobe dauka egutegian. Behobia-Donostia lasterketa ezaguna korritu baina bi hilabete lehenago, eta abantaila horri etekina atera nahian hainbat nobedade izango ditu probak. Herrian barrena tarte luzeagoa osatuko du, jendeak korrikalariak gertutik ikus eta anima ditzan. 5 kilometroko zirkuitua osatu dute, eta helmuga herriko bihotzean izango da, Aballarri eta Guria tabernen parean, Idiazabal kalean.

Zirkuitoa honakoa izango da: Idiazabal kaletik jubilatuen bi-



**Korrikalariek dutxatzeko aukera izango dute kiroldegian, helmugatik 200 metro-ra.**

*"Hiru proba antolatu dituzte. Korrikalarientzako 5 eta 10 kilometroko bi proba. Bi horiek 18:00an hasiko dira. Aurrez, 17:30an, nordic walking diziplinako proba egingo da"*

ribilgunera. Handik San Juan kalera, eta Aranzubín barrena Azkorte kalean aurrera, Geltoki kaletik jaisteko. Isidro Setien kaletik Erratzu zubiraino joan beharko da eta handik Igerategi baserriraino. Han buelta hartu, berriro Erratzuraino, eta industrialdean Elketako zubiraino. Han itzuliko bidea hartu beharko da berriro, Erratzu zubiraino, eta Santa Leokadi eta Geltoki kalean barrena, San Juan plazaraino. Mojen ikastetxe aldapan behera Etxeberri auzora eta Idiazabal kalera jaitsi be-

harko dute korrikalariek, Goi Mendi taberna parean, eta handik helmugaraino, 300 bat metro errepede nagusitik.

Hiru proba antolatu dituzte. Korrikalarientzako 5 eta 10 kilometroko bi proba. Bi horiek 18:00an hasiko dira. Aurrez, 17:30an, nordic walking diziplinako proba egingo da, 10 kilometrokoa (zirkuitoari bitzuli). Azken urteetan 100-150 laguneko izan da parte hartzea, baina antolatzaileak askoz kopuru handiagoa espero dute etziko ekitaldian. Nordic walking probarako 100 bat parte hartzaile espero dituzte, eta korrika saioa bi probetan, 300 laguneko kopurura hurbildu nahi lukete. Izen-ematea [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) web orrian egin liteke, 10 euro ordainduta. Bihar eta etzi ere eman daiteke izena, antolatzaileek kiroldegian egokituko duten stand batean, 15 euroko diru sariaren truke (ostirala 18:00tik 20:00ra eta larunbatean 15:00tik 17:00ra).

Korrikalariek dutxatzeko aukera izango dute kiroldegian, helmugatik 200 metro-ra, eta proba guztiak bukatuta, sari banaketaz gain, Urnietako hainbat denda eta tabernek emandako oparien zozketaren emaitza jakinaraziko da. Zubitxo plaza izango da bukaerako festa horren gunea, eta antolatzaileen nahia ahalik eta parte hartzaile gehienek oparixoren bat eta Herri Birako oroitzapen ona etxera eramatea da. Lortzen den diruaren zati bat Pausoka elkartera bideratuko dute antolatzaileek.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**IRAILAREN 11**

**LASARTE-ORINKO  
Udal Euskaltegia**

**IRAILAREN 11ETIK 15ERA  
MATRIKULA ZABALIK**

**Oharra:** Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

**Oharra:** Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larromendi  
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

#### Argitaratzailea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

#### Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

#### Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
Webgunea: www.aiurri.com

#### Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Olatz Lasa, Xabier Lasa, Joxeaba Lizeaga eta Izarne Olano.

#### Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

#### Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.  
www.aiurri.com.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

#### Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

#### Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.

# Agenda

IRAILAREN 10ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

## Gaztelekua

### Urnietan

Izen-ematea Gaztelekuan bertan. Irailaren 7tik zabalik da. Ordutegia: 17:00- 19:30.

## Farmaziak

### Eskualdea

Guardiako farmaziak.  
**Andoain:**  
Zumea plaza, asteburu osoa. Zatarain, larunbat goiza.  
**Urnietan:**  
Gomez, Hernani.  
**Eskualdea, gauz:**  
Etxebeste.  
Elkano, 9. Hernani.

## Batzarra

### Andoain

Zuena emakumeen elkartearen bazkideen batzar orokorra, Extremadura kaleko egoitzan. Irailak 17, osteguna. 17:30.

## Lehiaketa

### Andoain

**Euskarazko film laburren lehiaketa.** Bakarka edo taldeka, lanak bi mailatan sarituko dituzte: 16-18 urte bitartekoak eta 18tik aurrerakoak. Lehiaketan parte hartzeko aukera urriaren 5ean zabalduko da. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 3an izango da.

### Urnietan

**XIX. pintura lehiaketa.** Izen-ematea Lekaion egingo da, egunean bertan 09:00etatik 10:00etara. Parte-hartzaileek ordu horretan agertu behar dute koadroetan ziguiluak jartzera. Sariak 750, 450 eta 300 eurokoak hurrenez hurren. 14 urtez azpikoentzat 50 euroko baliola duen saria. 09:00-10:00 Izen ematea. 19:00 Sari banaketa. Irailak 20, igandea.

## Hitzaldia

### Andoain, Urigain

Zoru klausulei buruzko hitzaldia, Kaleratzeak Stop taldearen eskutik. Irailak 11, ostirala. 19:00.

## Irteerak

### Andoain

Euskalduna mendi taldearekin, Pirinioetara irteera. Irailak 12-13.  
Santa Krutz erretirodunen zentroak antolatuta, Zangozara irteera. Hamaiketako, bisitaldia, bazkaria eta arratsaldean Sos del Rey Catolico herriari bisitaldia. Irteera: 09:00, Ologaia. Irailak 19, larunbata.

## Bertsotaria

### Urnietan, Oianume

Miela batzordeak antolatuta. Bertsolariak Agin Laburu eta Anjel Mari Peñagari-kano izango dira. Izen-emateko eta ordaintzeko epea zabalik dago Oianumen bertan eta Xauxar eta Kantoin. Ezinbestekoa da alde aurretik izena ematea. Prezioa: 25 euro. 21:00. Oianume. Irailak 19, larunbata.

## Batusalsa

### Urnietan

Irailaren 19an Urnietan, Buruntzantzan taldeak antolatuta, Batusalsa eguna ospatuko da. Horra, egitaraua:  
10:00-13:00 Batukada tailerrak 14 urtetik gorakoentzat.  
13:00-14:30 Ikasitakoarekin toketada herrian zehar.  
16:30-19:30 Kubako saltsa tailerra.  
20:00-22:00 Dantzaldia Son Kandela musika taldearekin. Irailak 19, larunbata.

## Gudua

### Andoain

Andoaingo Guduaren antzezpena, herrigunean. 17:15 Zumea plaza. 17:15 Goikoplaza. 19:30 Goikoplaza. Irailak 12, larunbata.

## Ikastaroak

### Urnietan, Sarobe

Antzerki tailerrean edota Udal ikastaroetan izena emateko aukera zabalik. Informazio osagarria, alboan. Sarobe: 943 00 80 42.  
Kiroldegiko eskaintza: Spinning, aerobika, tonifikazioa, adinekoentzat gimnasia, zumba...  
Izena emateko epea: Irailak 12, larunbata.

### Andoain

Kirol eta jarduera fisikoen ikastaroen eskaintza prest dute Allurralden. Hasiera: Irailak 16.  
Pintura, arte aplikatuak, egur-taila.  
Izen-ematea: Ataria, Bastero. Zuena elkartearen ikastaroak, aukera zabala. Informazioa: 606 92 96 97.

## Hitzaldia

### Andoain

"Minetik mugimendura", adinekoen zuzenduta, ariketa fisikoen inguruan. Ariz Agirre eta Ander Azkue fisioterapeuten eskutik. 19:00 Urigain. Irailak 16, asteazkena.


## Iñistor Jaia

### Urnietan

Juxto Egaña Urnietar prestu izendatuko dute. Toka txapelketa, bazkaria, bertsolariak, omenaldia eta irrintzi lehiaketa. Bazkarirako txartelak Kantoin eta Gurian salgai. Irailak 27, igandea.

## ZORION AGURRAK

### ZORIONAK



Zorionak polita! Oso ondo pasa zure egunean eta zuk dakizun bezala ospatu! Jarraitu orain arte bezain alai eta jator! 22 muxu handi! Etxekoak.

ANDOAIN


### ZORIONAK



Irailaren 15ean 6 urte beteko dituzte gure etxeko sorginik handienak. Zorionak **Maren!** Jaso muxu piloa aitaxo, amatxo, Eider, Jon eta familiako gainerakoen partetik.

ANDOAIN


### ZORIONAK



Dagoeneko gure etxeko "txikiak" 18 urte egingo ditu! Zorion beronenak etxeko guztien partez eta zorterik onena hasia duzun etapa berri honetan.

ANDOAIN

### ZORIONAK



**Axel** Elizegik 7 urte bete zituen irailaren 3an. Zorionak pirata!! Andoaingo lagunaren partetik.

ANDOAIN

### ZORIONAK



Irailaren 8 eta 15ean, **aitonak** eta **Maddik** urteak betetzen dituzte, bakarrik 70 urteko aldearekin. Maite zaituztegu eta zuekin ospatuko ditugu. Zorionak bihotz-bihotzez etxekoaren partez. Aupa bikote!!

ANDOAIN

### ZORIONAK



Zorionak **Anitz** begi-urdin !!! Gure printzesa handiak 7 urteko beteko ditu irailaren 12an. Primeran pasa ezazula zure egunean. Euri, aita, ama eta etxeko guztien partetik.

URNIETA

**ZORION AGURRAK:**  
619 163 537.

## Andoaingo AEK euskaltegia

Andoaingo AEKk jakinarazi nahi du 2015-2016 ikasturterako matrikulazio garaia zabalik dela. Klaseak urriaren 1ean hasiko dira eta ekainaren 22an bukatu.

- Euskalduntze maila guztiak eskaintzen dira. 1go, 2. eta 3. mailako hizkuntza eskakizunak prestatzeko klaseak ere baditugu, EGAKo azterketaz gain.
- Orduzabala.
- Pertsonalizuagoa den zerbait nahi duenarentzat, autoikaskuntza sistemak

ordutegia ikaslearen beharretara egokitzea ahalbidetzen du.

- Kurtsoan zehar kultur ekintzak antolatzen dira ikasleak elkar hobeto ezagutzeko eta euskaraz mintzatzeko aukera izateko.
- Eta eskaintza osatze aldera, Mintzalaguna zerbitzua ere eskaintzen dugu Andoaingo udalarekin batera, hitz egiteko erraztasuna irabazteko.
- Diruz lagundutakoak.
- Matrikulazioa: 29ra arte.

## Hernanialdeko AEK

Taldean nahiz autoikaskuntza bidez aritzeko aukera dago eta euskara ikasi edo hobetu nahi duen guztiak du lekua bertan: familian, lagunekin nahiz kalean euskaraz bizi nahi dutenek, umeak euskaraz hazi nahi dituzten gurasoek, lankideekin euskaraz aritu nahi duten langileek,

euskaraz azterketaren bat gaitu nahi duen edonork, euskaraz ahasztua izan eta hitz eginez berreskuratu nahi duenak... Azken batean, egunerokotasunean euskara txertatu edo hobetu nahi duen edonork. Goiz, eguerdi, arratsalde eta iluntzetan izango dira klaseak.

